

Ondoren azaltzen den problema ebazten duten algoritmoak eta c programazio lengoian idatzitako programa egin.

Nota jartzerako orduan kontutan hartuko dira ondorengoak:

- Algoritmoek adierazten duten ebazpenaren egokitasuna.
- Programaren egitura ulergarria:
  - Funtzioak erabili.
  - Iruzkinak iturburu kodean.
- Programa erabilgarria:
  - Erabiltzaileak programari ematen dizkion datuak baieztatzen dira.
  - Mezu esanguratsuak pantailaratzen dira.
  - Egin beharrekoa egiten du.
- Eragiketa osagarriak.

### IGOGAILU ADIMENTSUAK:

Igogailu azkarra (ez abiaduraz baizik eta adimenaz) kudeatuko duen programa. Eraikinak hamar pisu izango ditu eta bi igogailu. Bidaiarien itzarote denbora gutxitu nahi da. Menu hau eskaintzen duen programa autoerrepikakorra sortu:

- a) Programa hasieratu: datu guztiak hasieratu.
- b) Deitu: norbaitek igogailua erabili nahi du. Bidaiariak kotsola batean adierazten du ze pisan dagoen eta zein pisura joan nahi duen. Programak bi datu hauek jasoko ditu. Hurbilen dagoen igogailua bidaliko du programak (pantailaz agertuko da zein pisuetatik igarotzen den). Beste igogailua aurrekoaren helmuga kontutan izanda, dei berri bat jasotzeko tartearen erdialdean kokatuko da (pantailaz agertuko da zein pisuetatik igarotzen den). Tarte bakoitzaren

probalitatea era honetan kalkulatzen da:  $\frac{\sum_{Pisua=0}^{Helmuga-1} (Jaso_{pisua} * 1 + Laga_{pisua} * 0.5)}{\sum_{Pisua=0}^{10} (Jaso_{pisua} * 1 + Laga_{pisua} * 0.5)}$  eta

$$\frac{\sum_{Pisua=Helmuga+1}^{10} (Jaso_{pisua} * 1 + Laga_{pisua} * 0.5)}{\sum_{Pisua=0}^{10} (Jaso_{pisua} * 1 + Laga_{pisua} * 0.5)}$$

- c) Programa bukatu.

Eragiketa bat egin ostean datu hauek pantailaratuko dira: pisu bakoitzean zenbat dei izan diren bidaiariak jasotzeko; zein pisan jaitsi diren; eta igogailu bakoitza non dagoen. Hau egiten duen funtzio bat sortu. Taula atzitu ahal izateko erakusleak erabiliko ditu.

Adibidea: A igogailua erabiltzaileak jaso ditu eta 6. pisuan laga ditu. B igogailua goiko tartearen erdian kokatu da, deitu izateko aukera gehiago duelako.

Pisua	Jaso	Laga	A igogailuaren kokapena	B igogailuaren kokapena
10	9	6		
9	7	8		

8	1	4		*
7	8	1		
6	7	7	*	
5	6	2		
4	2	5		
3	3	1		
2	0	3		
1	6	6		
0	5	5		